

EL NACIONALISMO VASCO EN NAVARRA (1931-1936)

Josu Chueca Intxusta

Bilbo, Argitalpen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1999

Abertzaletasunaren historia gero eta hobeto ezagutzen dugun arloa da. Are gehiago, azken urte hauetan jorratzen ari garen bide nagusiek ezagutza hori sakondu baino ez dute egingo. Bide horietako batek tokian tokiko abertzaletasunaren bilakaera aztertzen badu, besteak herrialdea edo Euskal Herri osoa hartzen du kontuan, eskaintzen dituzten interpretazioak datuetan oinarrituta eta ez hainbeste egileen aurreiritzietan. Testuinguru eta joera horietan kokatu behar da 1999. urtean argitaratutako Josu Chuecaren doktorego-tesiaren laburpena biltzen duen liburua. Honetaz egingo dudan iruzkinak bi zati izango ditu. Lehenengoan testuan azaldutako tesi nagusiak laburbiltzen saiatuko naiz; bigarrenean, horien inguruan sortutako kezkek plazaratzeko ahalegina egingo dut.

Liburuak bost atal ditu; horiez gain, ondorioen eta bibliografiaren atzetik eraskin garrantzitsu bat dauka, Chuecak bildutako garaiko Nafarroako abertzaleen zerrenda luzea. Atalen banaketa abertzaletasunaren zeregin desberdinen arabera eginda dago. Hots, alde batetik, Hego Euskal Herri osorako autonomia-estatutua lortzeko ahalegina aztertzen da; eta, bestetik, abertzaleen arabera euskal gizartea berreraiki nahia. Era honetan, lehenengo eta hirugarren atalek abertzaletasunaren antolaketa, oinarri eta kultur arloko ekintzak azaltzen dituzte eta bigarren, laugarren eta bosgarrenean Euzko Alderdi Jeltzalearen barne-bizitza eta, batez ere, garaiko bizitza

politikoan izandako jarrerak eta hauteskundeetako emaitzak erakusten ditu Chuecak.

Lehen atalean, esan bezala, abertzaletasunaren antolaketa oinarriak azaltzen dira. Batzokiak, Uri Buru Batzarrak, Emakume Abertzale Batza, Euzko Langileen Alkartasuna, prentsa (*Amayur* eta *La Voz de Navarra*) eta gizarte-oinarriak erakusten dira. Bertan emandako datuen arabera, Nafarroan 86 UBB (nahiz eta beste atal batzuetan Chuecak kopuru hori 127ra arte igo, ikus 300. or.), 33 batzoki, emakumeen 17 talde eta ELAren 22 sail osatu ziren Errepublikako urteetan. Gizarte-oinarriari dagokionez, beste herrialde batzuetan ikusi den moduan, behe-mailako eta klase ertaineko kide gazteak izan ziren Sabino Aranaren jarraitzaileak Erresuma Zaharrean. Beraz, alderdi txikia izan arren, bazuen sus-trairik bertako gizartean.

Bigarren atalak 1931. eta 1932. urteetako gertakizunak aztertzen ditu. Nafarroako abertzaleek emaitza kaskarrak lortu zituzten Errepublika ekarri zuten hauteskundeetan, eta ahultasun hori funtsezkoa izan zen 1936ra arte doan garaian. Eskuineko beste alderdiekin egindako koalizioak eta autonomiaren aldeko kanpainen erakutsitako kemenak lagundu zuten hautestontzietan lortutakoa baino nortasun handiagoa erakusten Nafarroako politikan. Kanpaina horiek garaiko beste bi ezau-garri erakutsi zituzten: Bizkaiko erakundearen nagusitasunaren aurrean,

eta Nafarroako jeltzaleen zailtasun ekonomikoen ondorioz, EAJren barruan zeuden menpekotasunak. Eta Nafarroako alderdi gehienek, lehenik ezkertiarrek eta gero eskuindarrek, lau herrialdeen arteko anaitasuna apurtzeko zuten asmoa. Bi arazo horiek ondorio sakonak izan zituzten Nafarroako jeltzaleen artean.

Hirugarren atalean, liburuaren laburrenean, abertzaletasunak bere ideologia zabaltzeko bultzatutako kultur ekimenei buruz ari da. Horretarako, "Euskeraren Adiskideak" taldearen jarduera, euskal eskolen sorrera, euskal idazleen lana, antzerkia, dantza-talde eta abesbatzen ekinbideak erakusten zaizkigu, eta jeltzaleen zereginetan zuten toki garrantzitsua nabarmendu.

Autonomia-estatutuaren porrotak Nafarroako Eusko Alderdi Jeltzalea jokoz kanpo utzi zuen hurrengo urteetan. Garai hori da laugarren atalaren ikergunea. Chuecak 1933ko EAJren berrantolaketa azaldu ondoren, jelkideek egindako propaganda-kanpaina, 1933ko azaroko hauteskundeak (botoen % 9,4 lortu zuten abertzaleek), Manuel Irujoren zeregina Gipuzkoako legebiltzarkide-lanetan eta Nafarroako EAJren barne-krisia aztertzen dizkigu. Gertakizun horiek alderdi jeltzalearen bakardadea ez ezik, bazterketa hori gainditzeko ahaleginen porrota ere agerian jarri zuten.

Azken atalak 1934ko urritik 1936ko uztailera garamatza. Urriko Iraultzaren ondorioz, 1935ean jasandako errepresioaren eta jarduera publikoa egiteko zailtasunen ondoren, 1936ko otsailera hauteskundeetan izandako parte-hartzea azaltzen zaigu Chuecaren lanean. Legebiltzarrean lortutako ospeaz baliatzeko asmotan, abertzaleek hautagai bakarra aurkeztu zuten, Manuel Irujo. Are gehiago, zenbait tokitan Iru-

joren izaera abertzalea bigarren mailan utzi zen boto gehiago lortzeko itxaropenarekin. Dena den, emaitzak ezagunak dira: eskuineko indarrek erabateko garaipena lortu zuten (botoen % 70) eta Frente Popularrak lortu zuen bigarren postua (% 21arekin). Irujo, bere 15.142 botoekin (% 9) hirugarren tokian geratu zen, besteengandik oso urruti. Espainiako hauteskundeetan Frente Popularrak lortutako garaipenak Nafarroan ere aldaketarako aukera zabaldu zuen, Araba, Bizkai eta Gipuzkoarentzako autonomia-estatutuaren egitasmoaren eztabaidak izan baitzuen oihartzuna. Ezkerreko taldeak, bestetik, eskuinekoen nagusitasuna ikusirik, estatutu komunaren aukera baloratzen hasi ziren. Uztailaren 18ko altxamendu militarrek, ordea, aukera desberdinen bilakabide posible guztiak moztu zituen. Zein izan zen abertzaleen jarrera kolpearen aurrean? Alderdia legez kanpo geratu zenez, alderdikide ohien jarrera da azter dezakeguna Chuecaren ustez. Zenbait jeltzalek ihes egin zuten eta beste asko Frankoren aldeko tropetan sartu ziren, batzuk boluntario eta beste batzuk derrigortuta. Errepresioari dagokionez, abertzaleek ez zuten inondik inora jaso ezkerrekoen modukoa, nahiz eta jeltzale batzuk, Fortunato Aguirre, Pedro Gorostidi eta abar fusilatua izan.

Hona hemen Chuecaren lanaren punturik garrantzitsuenak. Berari esker askoz ere hobeto ezagutzen dugu garaiko Nafarroako abertzaletasunak orduko bizitza politikoan izandako parte-hartzea eta egindako ahaleginak. Jeltzaleek lortutako emaitzen urritasunak eta Nafarroako eskuinaren nagusitasunaren aurrean eduki zuten bigarren mailako tokiak ezin digute ahantzarazi zenbait momentutan lortutako erreferentzialtasuna eta, gerra etorri ez balitz, lor zezaketena Erresuma Zaharrean.

Dena den, badaude liburuan gehiegi argitzen ez diren zenbait puntu. Ez dakit zergatik den, berez ez direlako landu, tesiaren laburpenean desagertu egin direlako edota jakintzat ematen direlako. Nafarroaren ezaugarri sozioekonomikoen azalpen xumea dugu horietako bat. Nafarrak ez garenontzat edota garai hori ezagutzen ez dugunontzat aipamen batzuk ulergaitzak dira, ez baitugu herri edo eskualde horien berri zehatzik, kokapen geografikoa salbu. Zergatik gertatzen da abertzaletasunaren nagusitasuna Goizuetan eta ez Donezteben? Ezer gutxi esaten zaigu horren inguruan. Ia ez da azaltzen zeintzuk izan ziren abertzaletasunera hurbiltzeko arrazoiak. Gainera, liburuaren orrialde gehienetan “goi-mailako” politika aztertzen da, eta jeltzale arruntak oso gutxitan aipatzen dira. Abertzaletasunaren gizarte-oina-

ria da garapen luzeagoa behar duen beste puntu bat. Hemen egindako bilketa-lan itzelaren ondoren atal horrek merezi zuen azterketa xeheagoa, alderdi barruko buruzagien ezaugarrien eta jatorriaren azterketa eginez, adibidez, eta, batez ere, Nafarroako errealitate sozialarekin konparatuz, bai gizarte osoarekin, baita beste alderdi batzuen oinarri sozialarekin ere. Dena den, erraza da galderak planteatzea eta zailagoa, iturrien urritasuna kontuan hartuta gainera, erantzun egokiak aurkitzea. Josu Chuecak lan honetan egindako ikerketek abertzaletasunaren aberastasuna eta konplexutasuna agerian jartzen dute, eta datu hori da, hain zuzen, bere lanaren kalitate onaren seinalerik sendoena.

Mikel Aizpuru Murua